UDAL ERAIKINETAKO PUTZUEN HUSTUKETA ETA ESTOLDERIAREN GARBIKETA ZERBITZURAKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRI ZEHATZAK

1. XEDEA

Kontratu honen xedea Udal eraikinetako putzuen hustuketa eta estolderiaren garbiketa da.

Kontratu hau lote bitan banatzen da:

- 1 lotea.- Aritzatxu hondartzako zerbitzuen eraikinaren putzuaren hustuketa eta garbiketa

- 2 lotea.- Udal eraikinetako estolderia sistemen hustuketa edota garbiketa

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen epea urte bikoa izango da. Epe hau beste urte bitan, urtez urte, luza daiteke, gehienez 4 urte betez (2+1+1).

3. LANEN DESKRIBAPENA

3.1. 1 LOTEA. ARITZATXU HONDARTZAKO ZERBITZUEN ERAIKINAREN PUTZUAREN HUSTUKETA ETA GARBIKETA

3.1.1. PUTZUAREN EZAUGARRIAK ETA KOKAPENA

Putzuaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Edukiera: ~ 3,40 m^3
- Neurriak: I. eranskina

Putzua hondartzako solarium eremuan dago kokatuta (II. eranskina).

CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010
Datea: 24/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

3.1.2.. EGIN BEHARREKO LANAK

Lanak uda sasoian egingo dira hondartzako erabiltzaileek instalazioak erabiltzeko aukera izan dezaten. Zerbitzua, gutxienez, Bizkaiko Foru Aldundiko Hondartza zerbitzuak adierazitako bainu denboraldian emango da. Egun, denboraldia ekainaren 1etik irailaren 30era ezarri da.

Hartara, kronologikoki, egin beharreko lanak honela banatuko dira:

- Denboraldi hasierako hustuketa (1) (maiatzaren azken astean)
- Denboraldiko hustuketak (17) (ostiraletan)
- Abuztuko hustuketa gehigarriak (4) (astearteetan)
- Denboraldi amaierako hustuketa (1) (urriaren lehenengoko astean)
- Putzuaren garbiketa sakona (solido guztiak barne) (1) (urrian egiten den hustuketarekin batera).

Hauek izango dira egin beharreko lanak:

- Hondartzako zerbitzuen eraikinaren putzuaren hustuketa eta garbiketa. Hustuketa hau egiteko, hondartzarako bidearen malda eta estutasunagatik, bidearen geometriari egokitutako ibilgailu apropos baten bidez egin beharko da.
- Putzuaren zigilatzea. Putzuaren hustuketa bideratu ondoren, usainak ekiditeko, putzuaren estalkiari zigilatze egokia egingo zaio. (Behar diren baliabide guztiak esleipendunaren kontura izango dira).
- Hondakinen isurketa. Batutako hondakinak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP/CABB) adierazitako tokian isuriko dira. Esleipendunak Lamiarango hondakin uren araztegian zein saneamendu sare unitarioan isurtzeko, BBUP/CABBeren baimena eskuratu beharko du eta, edozein kasutan, honen esanetara egongo da.

  Baimena lortu ezean, esleipendunaren kontura izango da hondakinen kudeaketa egokia. Edozein kasutan, kontratistak, kontratuan zehar eta udalak eskatuta, aurkeztu beharko ditu beharrezkoak diren agiriak hondakinen kudeaketa egokia gauzatzen dela ziurtatzeko.

3.1.3. LANAK EGITEKO BESTELAKO BALDINTZAK

CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010

Datea: 24/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Esparru naturalaren erabiltzaileen segurtasuna zorrotz zainduko da, hori dela eta, bai lanak bai joan-etorriak kontu handiz egin beharko dira eragozpenak ekidite-aldera.

Lanen ordutegia egokituko da eremuaren erabilerari, jende kopurua saihestuz. Beraz, hondartzen denboraldian zehar, lanak ezingo dira burutu 10:30etik 20:00etara.

Eguraldia edo unean uneko hondartzen erabilerak ahalbidetuko bazuen bestelako ordutegia lanak bideratzeko, ahal izango da aldatu, betiere, Udalak horrela baimentzen baduen, esleipendunak lehendik eskatuta.

3.2. 2 LOTEA. UDAL ERAIKINETAKO ESTOLDERIA SISTEMEN HUSTUKETA ETA GARBIKETA

3.2.1. LANEN EZAUGARRIAK

Esleipendunak, udalaren eskaera dela medio, udal eraikinetako estolderia sistemetan egin beharreko hustuketa, garbiketak edota hodien libratzea egin beharko ditu.

Honez gain, Bermeoko Udalaren eskumenekoa den kaleko euri uren batze sisteman gerta daitezkeen buxadurak libratzea ere kontratuaren barruan egongo da, hala nola hustubideak edo sumideroak eta kanaletak.

Kasu guztietan, sortutako hondakinen kudeaketa enpresa esleipendunaren ardurapean geratuko da eta hauxe egokia izango beharko da, araudia betez.

Azaldutako lanak bideratzeko baliabide egokiak erabiliko dira unean uneko eta tokian tokiko errealitateari egokituta. Halaber, lanak bere osotasunean gauzatzeko behar diren baliabide guztiak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Bildutako hondakinak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP/CABB) adierazitako lekuan isuriko dira, edo, haien ezaugarrien arabera, kudeatzaile baimenduari eman beharko zaizkio tratatu ditzan, aurretik adierazitako isurketa egitea ezinezkoa bada.

Edozein kasutan, kontratistak, kontratuan zehar eta udalak eskatuta, aurkeztu beharko ditu beharrezkoak diren agiriak hondakinen kudeaketa egokia gauzatzen dela ziurtatzeko.

3.2.2. GUTXIENEZKO ESKU HARTZEAK

Gutxienez, urtean behin, honako eraikinetako estolderiaren garbiketa lanak burutu beharko dira:

- Herri eskolak

CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010
Datea: 24/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Talako kantina
- Futbol zelaia
- Zaharren egoitza

Edozein kasutan, esleipenduna udal teknikarien edo hauek adierazitako ordezkariaren esanetara egongo dira, balizko eragozpenak edo arazoak ekidin aldera.

2 Loteari dagozkion esku-hartzeak udal aurrekontuaren eskuragarritasunarekin lotuta egongo dira.

4.- ESKU HARTZEN ALEKO PREZIOAK

Kontratu hau betetzeko, lote bakoitzeko, honako aleko prezioak finkatu dira.

4.1. 1 LOTEA. ARITZATXU HONDARTZAKO ZERBITZUEN ERAIKINAREN PUTZUAREN HUSTUKETA ETA GARBIKETA. ALEKO PREZIOA.

	Aleko prezioa (BEZa kanpo)
Hustuketaren prezioa	360,00 €
Aleko prezio hau hobetu ahal izango da eskaintzan dagokion beherapen portzentajea eskainiz.	

Taula honetan laburbiltzen dira denboraldian egin beharreko hustuketak

	Egin beharreko hustuketak
Denboraldi aurrekoa	1
Denboraldikoak (06/01=>09/30)	18
Bereziak (Abuztua)	4
Denboraldi amaiera	1
GUZTIRA	24

4.2. 2 LOTEA. UDAL ERAIKINETAKO ESTOLDERIA SISTEMEN HUSTUKETA ETA GARBIKETA. ALEKO PREZIOAK.

CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010
Datea: 24/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

	Aleko prezioa (BEZa kanpo)
Kamioiaren ordua (12 m³ arteko kamioia)	107,80 €
Hondakinen kudeaketa (€/Tn)	85,80 €
Hondakinen garraioa (€/bidaia)	379,50 €

Aleko prezio hauek hobetu ahal izango dira eskaintzetan, prezio guztietarako, beherapen portzentaje bakar bat eskainiz.

5. LANTALDEEN BALDINTZA ZEHATZAK

Seinaleztapenari, zirkulazioari, IATari, segurtasunari, kutsadurari, udal-ordenantzari eta abarri dagokienez aplikatu beharreko arau orokor guztiak betetzea ezinbestekoa izango da.

Bide publikoan lan egiten duten ibilgailu guztiek behar diren seinaleztapen-ekipoak izango dituzte, hobeto antzemateko eta, horrela, oinezkoentzako eta ibilgailu-trafikoarentzako arriskuak saihesteko.

Une oro aplikagarria den araudia bete beharko da.

6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Esleipendunak, azpikontratistek eta lan horietan esku har dezaketen langile orok zorrotz bete beharko dituzte tokiko, autonomiako, estatuko edo Europako lege eta xedapen guztiak, gizarte, lan eta laneko higiene eta segurtasun arloetan, kontratua sinatzen den unean indarrean daudenak, bai eta kontrata egiten den bitartean ager daitezkeen guztiak ere; beraz, langile guztiak behar bezala legeztatuta eta prestatuta egon beharko dira.

Era berean, bere kargura izango ditu lan horietan parte hartzen duten langileen segurtasuna bermatuko duten babes eta seinaleztapen neurri guztiak. Enpresa esleipendunak enpresa-jardueren koordinaziotik eratorritako betebehar guztiak betetzeko konpromisoa hartuko du, administrazio-orri zehatzetan finkatzen den moduan, eta hori egin ahal izateko behar den informazio guztia emango die Udaleko zerbitzu teknikoei.

CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010

Datea: 24/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

7. ERABILI BEHARREKO BITARTEKOAK

Esleipendunak balizatzeko bitartekoak eduki beharko ditu eta beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartu beharko ditu, eta bere kontura izango dira horren ondoriozko kostuak, bai instalaziokoak, bai mantentze-lanetakoak.

Lanen balizamendua eta segurtasun-neurriak behar den denboraren %100ean egongo dira martxan, eta esleipendunaren erantzukizuna izango dira helburu horiek lortzeko hartu beharreko neurriak.

8. KOMUNIKAZIOAK, KOORDINAZIOA ETA HARTU-EMONAK ESLEIPENDUNAREN TALDE TEKNIOAREN ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN ARTEAN

Esleipendunak izendatutako talde teknikoak komunikazio-sistema bat izango du udaleko zerbitzu teknikoekin, udalak behar duen bezain zehatz jakin ahal izateko zer egoeratan eta nola egiten dituen lanak esleipendunak. Halaber, baliogarria izango da exekuzioaren edozein alderdi hobetzeko hartu beharreko erabakiak finkatzeko, adostasunez.

Ahozko komunikazio jarraituaz gain, Bermeoko Udalak izendatutako talde teknikoaren eta teknikari ikuskatzailearen artean idatzizko komunikazio sistematikoa ezarriko da (posta elektroniko bidezko komunikazio digitala), asteko lanak egin izanaren agiria batean zehaztua.

9. KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK

Kontratistaren kontura izango dira eskainitako zerbitzuan finkatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren gastu guztiak. Kontratistak bere gain hartuko ditu horrek sortzen dituen gastu guztiak, hala nola langileak, erregaia, ekipoen mantentze-lanak, hondakinen garraioa eta kudeaketa egokia, aseguruak, administrazio- eta kudeaketa-gastuak, tasak, zergak eta ustiapena normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren beste guztiak.

Esleipendunak behar diren neurriak hartuko ditu lanak egiten diren bitartean hirugarrenen babesa bermatuta gera dadin, eta bere erantzukizun osokoa izango da lanak egitearen ondorioz sor daitezkeen kalte-galerak, baldin eta, indarreko xedapen eta legeen arabera, erruduntzat jotzen bada.

Zerbitzu Saileko teknikaria

Data eta sinadura orri oinean

CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C797400G1N0H3M8S6A4


Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010
Datea: 24/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia


I. ERANSKINA. Putzuaren ezaugarriak

Pozo séptico playa Aritzatxu

Alzado



Planta



CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010

Datea: 24/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

II. ERANSKINA. Kokapena



Bermeoko Aritzatxu hondartzaren kokapen orokorra

8



Putzuaren kokapen zehatza

CSV: 07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000C797400G1N0H3M8S6A4

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 11/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2023 15:18:51

EXPEDIENTE :: 2023KON_IS_0010

Datea: 24/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia